

Che Guevara

edo pentsamentua lapurtu dioten gizona

RIKARDO ARREGI

“Che” Guevara hil dute. Topikoekin itzegiteko, “Che”-ren gorputza ta espiritua hil dute. Bai, espiritua. Hori da illabete hauetako gertakizunik bortizenetakoa .

Nor da gaur “Che” Guevara’z gaizki mintzatzen dana? Apenas iñor. Oker bazebillen ere, justiziaren alde burrukan zebillela ez du iñork ukatzen. Burrukalari erromantikoaren irudia egin dute eguneroko, aldizkari, irrati ta telebistak. Batzuentzat Argentina’n jaio, Cuba’n Industria’ko ministroa izan eta Bolivia’n hilla delako hispanismoaren personifikazioa (Madrille’ko SP egunerokoak bezela), abenturero sinpatiko bat, “Quijote” bat, pobreen aldekoa etab. besteentzat. Inperialismoaren, kapitalismoaren eta burgesiaren etsairik aundiena zen gizon hontaz, esandako hoiek kontrolatuta daukaten informazioko medioetan horrelako laudorioak edo, bestela, sinpatiak entzun eta ikustea arrunt arrigarria da. Azaletik, ordea.

Hori horrela geratu izatea kasikan derrigorrezkoa da. Ba dira egi ta ideia batzuk aurrez atakatu ezin ditezkenak: demokrazia, justizia, libertatea. Baztertu ezinak diralako bitako bat: edo bete edo ustur. Ba dira zenbait, gutxienak baiñan aberatsenak, beteak gertatzea kome-ni ez zaiena. Hoi-en artean arkitzen dira informazioko medioen jabe

diran zenbait. Ideia hoiei bere muña kentzea besterik ez zaie falta orduan. Hori da "Che" Guevara'rekin egin dutena.

"Che" Guevara zen guztia ustu ta irudi erromantiko bat, gaitzik egin ezin lezakena zabaldu dute.

Izan ere "Che" marxista zen. Nazioartekotasunean sifisten zuen. Erreboluziogillea zen. Irugarren munduan armen bitartez egindako erreboluzioa zela egokiena uste zuen. Klaseak ba dirala. Hauek burrukan daudela. Dirua kaltegarri dela. Estatu sozialistak (Europa'koak) egiten duten komertzioan nazioarteko prezioak (hauek kapitalak ezartzen dituenak dira) onartzerakoan sozialismoari traizioa egiten diotela. Estatu sozialista batek produzioko ondasun guztiak kolektibizatu behar dituela. Sozialista den estatu batean lanerako ta produzioko diru sari zirikitzailleak ematea ez dela gizon eta gizarte berri bat jasotzen saiatzea. Hauek ziran "Che"-ren pentsamentuetatik eta egiteetatik batzuek.

Horrelakorik, ordea, ez degu ezer asko irakurri ta entzun. Arri-tzekoa izango zen. Gizon hau hil ondorenean bizi zanean baiño fama-tuagoa biurtu den ezkerero, erabat arriskugarria izango zen osoan, zen bezela, menperatuek eta sufrituek ezagutzea. Komeni zen, beraz, ma-mia kentzea. Ta azal politarekin ametsetako beste bat sortzea.

Zen bezelakoa artu dezagun. Mitu biurtu dela ta dutela, estu-diatzea beste zerbait da. Hori bada estudiatu nahi duguna aitortu de-zagun. Ez gaitezen engañamenduetan ibilli.